

## LEON ELISSAMBURU GUARDA, PILOTARI, OLERKARI

*Sara, 1991-XII-20*

*Jean Haritschelhar*

Elissamburu familia ezagutua da Euskal Herrian, bereziki Jean-Baptiste Elissamburu, Sarako olerkaria, “Ikusten duzu goizean” deitu kantua egilea. Egia da kantu horrek arrakasta handia izan duela Euskal Herri osoan, Zubero zolatik Bizkaia puntaraino xaramelatua izan delakotz eta gaur ere entzun daiteke eztei edo holako biltzarretan.

Jean-Baptiste Elissamburu-ren familiaz gauza guti badakigu. Halere, aipatu behar dut Louis Dassance euskaltzain zenak idatzitako artikulua *Gure Herria* aldizkarian (1). Badakigu Michel deitzen zela aita, Baigorri sortua zela 1790-ko martxoaren 6an, bazuela anaia bat, Jean izeneko Baigorri sortua ere “quatorzième jour du mois de vendémiaire, quatrième an républicain français” herriko etxeko paperrek dioten bezala.

Hemeretzi urtetan ezkondu zen Michel Elissamburu 1809-ko otsailaren 1-ean, errient zelarik Arrosan Jeanne Iraçabal, hoge urteko neskarikin Jean Iraçabal eta Marianne Héguy Eihartze Martintoineko laborari etxeko nagusien alaba. Gazterik ezkondu zen Michel Elissamburu. Zertako ote? Napoleon enperadorearen garai horretan badakigu ez zirela gizon ezkonduak joaiten gerlara. Jadanik Espainiako gerla hasia zen, Austriaren kontra hastera zihoan. Soldaduen beharra zeukan Napoleonek.

Dena den, Michel Elissamburu-k eta Jeanne Iraçabal-ek familia eder bat altxatuko dute: hamaika seme-alaba orotara. Denak agertzen dira Baionako tribunaleko paper batean, 1859-ko ekainaren 28an egina. Hor agertzen dira:

- 1) Gratianne Elissamburu, dendaria, Ortzainen.
- 2) Dominika Elissamburu, François Haiçaleta-ren emaztea, laborariak Saran.

---

(1) L. DASSANCE, “Recherches sur la filiation du poète J.B. ELISSAMBURU”, *Gure Herria*, Bayonne, 1969, 278-288 orr.

- 3) Léon Elissamburu, aduanako brigadierra, Akotz Donibane Lohizuneko auzoan.
- 4) Marie Elissamburu, Etcheverry baten alarguntsa, laborarisa Ortzaizen.
- 5) Joseph Elissamburu, laboraria Ortzaizen.
- 6) Martin edo Puttin Elissamburu, laboraria Ortzaizen.
- 7) Jean Elissamburu, aduanako brigadier-ordea Zuraiden.
- 8) Gracieuse Elissamburu, “gelaria” (fille de chambre) Baionan.
- 9) Martin Elissamburu, errienta Zuraiden.
- 10) Jean-Baptiste Elissamburu, liotinant-ordea Clermont-Ferrand-en.
- 11) Jeanne edo Hyacinthe Elissamburu “menaiu atxikitzaile” (ménagère) Bordelen.

Ikus daiteke sei seme eta bortz alaba ukan zituztela, sei seme horietan biga laborari, biga aduanan sartuak, bat errient eta semeetan azkena, Jean-Baptiste, militarra. Baina interesatzen zaidana egun seme gehiena da, Léon Elissamburu.

## 1. GUARDA

Léon Elissamburu sortu da Ortzaizen, 1816eko martxoaren 1-ean. Aita errient zen ezkondu zelarik baina geroxago 1811-ko ekainaren 1-ean sartu zen aduanan eta orduan bizpahiru urtetarik lekuz aldatzen zituzten.

Beraz, Léon ttipiak ezagutu dituzke Arnegi, Aldude, Lasa eta Sarako eskolak. Ez dakigu bigarren mailako eskoletan ibilia zen. Dakiguna da 1834-eko uztailaren 1-ean sartu zela aduanan, aita bezala.

Saran bizi zen aitamen etxean eta ez zen oraindik ezkondua. Egia erran 18 urte zituen.

Lehen urtea Landesetan, Molietsen, iragaiten du soldata erdiarekin. Hori zen orduko legea. Urte baten buruko berriz Euskal Herriratzen da eta, erran dudan bezala, lekuz aldatuz egonen da Uztaritzen, Beskoitzen, Lekornen, Luhuson, Bidarrain, Uztaritzen berriz, Azkainen, Donibane Lohizunen, Urruñan, Akotzen, Behobian eta azkenik Baionan.

Bazukeen eskola puska bat Léon Elissamburu-k laster eginen dutela brigadier-orde, lau urteren buruan 1838-an eta handik hiru urteren buruan brigadier izanen da 1841-eko uztailaren 1-ean, izendatzen dutelarik Uztaritzen.

ritzeko Arrauntz auzoan. Han ezagutu duke Jeanne Darrambide Arrauntz Perulenea etxaldeko alaba, ezkonduko direlarik 1842-ko apirilaren 25-ean (2).

Sei haur ukanen dituzte eta biziko dira, jadanik erran dudan bezala, itsas-aldean.

Baionan hilen da 1861-eko ekainaren 13-an. Haren seme bat hilen da biharamunean 15 urte zituelarik. Hona zer dioen *Le Courier de Bayonne* kazetak, 1861-ko ekainaren 19-ko artikulu batean, beharbada Duvoisin-ek idatzia:

“Le 13 juin courant est mort à Bayonne M. Elissamboure, brigadier des douanes, dont le nom est bien connu des lecteurs du *Courrier*. Plusieurs fois, il avait avantageusement figuré dans les joutes littéraires qui, chaque année, ont lieu à Urrugne. Ses poésies se faisaient remarquer par une certaine verve et un tour qui portait un cachet d’originalité toute particulière. Mais, s’il savait bien manier la plume dans la langue basque, qui était sa langue maternelle, il ne savait pas moins bien se servir de la paume, et il avait en bien des circonstances paru avec éclat dans ces divertissements si chéris des Basques et qui attiraient sur la belle place d’Urrugne les amateurs des deux côtés des Pyrénées. M. Elissamboure était du reste un homme honorable, estimé de ses chefs, aimé de ses subordonnés. Atteint d’une maladie violente, il a été enlevé à l’improviste à l’amour de sa famille, à peine âgé de 45 ans et comptait néanmoins déjà plus de 25 ans de bons et loyaux services. Ce malheur ne devait pas marcher seul. A peine, pour ainsi dire, avait-il fermé les yeux qu’un de ses fils, âgé de 15 ans, mourait aussi et suivait dans un autre cercueil celui de son père. Un autre jeune enfant et une de ses filles âgée de 18 ans étaient en même temps en proie à la fièvre. Heureusement, ils se trouvent aujourd’hui en voie de guérison”.

M. Elissamboure laisse une veuve chargée de cinq enfants et n’ayant droit qu’à une faible pension qui ne dépassera pas 150 francs” (3).

Aita-semeak Arrauntzen ehortziak dira. Louis Dassance-k, bere artikularen ohar batean, erakustera emaiten du nola Arrauntzeko kaperan agertzen den hil hobi bat, izen deitura hauek dakartzana:

---

(2) L. DASSANCE, “Recherches sur la filiation du poète J.B. ELISSAMBURU”, *Gure Herria*, Bayonne, 1969, 280-281 orr.

(3) *Le Courier de Bayonne*, n.º 1275, mercredi 19 juin 1861.

“Ici reposit:

Léon Elissamburu 1er mars 1816 - 13 juin 1861

Arnaud Elissamburu 5 juillet 1846 - 14 juin 1861

Jeanne Darrambide 5 novembre 1812 - 27 septembre 1882” (4).

Ez dakigu ezerez bertze bortz hurrez. Ez dukete bizi gozoa ukan, bederen haur denboran, jakinez 1.000 libera irabazten zuela aitak eta *Le Courier de Bayonne*-eko artikuluan gelditu zela alarguntsa 150 liberekin.

## 2. PILOTARIA

Gauza guti dakigu pilotaz XVIII. mendea artio eta dakigun poxi hura kantuek salatzen digute, aipatzen dizkigutelarik Perkain eta Azantzaren balentriak, Donapaleuko partidari:

“Norat joaiten zira zu adiskidea?  
Donapaleora dut egungo segida  
Urreño bat deramat bertze baten bilha,  
Baldin Laphurtar horiek jalgitzen badira” (5)

edo Tolosako partidari, Perkain zahartua delarik kantuak salatzen duen bezala:

“Bat zen Perkain zaharra, bertzea Haroztegi  
Jaun hek bide zakiten kozinaren berri;  
Elgar frogatzeko untza bat edo bi,  
Ongi pentsatua duk disimula hori” (6).

Egia da ez dagoela prentsarik Baionan 1830 arte. Pauen *Le Mémorial Béarnais Mémorial des Pyrénées* bilakatu delarik gero, bi kazeta horiek ez diote pilotari lekuri emaiten. 1845-ean, artikulutxo bat, erraiteko zortzi pilotari luzean ariko direla Kanbon Montpensier printzipean aintzinean (7).

1846-an, aldiz, aipatzen da Irungo partida famatua artikuluz batean. Hor agertzen da lehen aldikotz Gaskoina, Hazparneko pilotaria (8). Fama handia ukan zuen pilota partida horrek lekuko dela orduan eginikako kantua:

---

(4) L. DASSANCE, “Recherches sur la filiation du poète J.B. ELISSAMBURU”, *Gure Herria*, Bayonne, 1969, 6. oharra, 286. orr.

(5) *Kantu, kanta, khantore*, Baiona, 1967, 248-249. orr.

(6) *Kantu, kanta, khantore*, Baiona, 1967, 249. orr.

(7) *Mémorial des Pyrénées*, Paue, 1845eko irailaren 8an.

(8) *Mémorial des Pyrénées*, Paue, 1846eko abuztuaren 13an.

“Pilota partida bat Irungo herrian  
 Probintziarren eta Frantsesen artian:  
 Jaun aphez Baztandar bat zen Frantsesekilan,  
 Gidari gobernador, kuraiarekila,  
 Ethorria urrundik, molts-onarekila,  
 Bitoriaren bila Gaskoinarekila.” (9)

Orduz gero agertzen da pilota, bai Baionako eta bai Pauko kazetan, Gaskoina maiz aipatzen dutela, Saran, Hazparnen, Donazaharren, hari esker eta duen famaren gatik jendea trumilka biltzen dela plazetan.

1851-ean, Urruñako plaza berrian Antoine d’Abbadie-k saristatzen ditu pilotari hoberenak 400 libera emanaz erraboteko partidaren irabazleei, 100 libera pilotari hoberenari, izan dadin irabazle edo galtzale, 100 libera plekako pilotari hoberenari. Sekulako arrakasta ukanen dute handik aintzina Urruñako partidek. Kantu berriak sortu ziren Irungo pilota partidaren airean hain zuzen:

“Mila zortzi ehun eta berrogoita hameka  
 Urrugnan gerthatu da oraico suyeta  
 Pilota partida bat izan da charmanta  
 Choria bezain arin zabilan pilota  
 Cascoinac errefera Autziartzec bota  
 Aisa irabaci dute Espagnolen contra” (10)

Urtero jokatuko dira partidak sari ederrez hornituak, Antoine d’Abbadie-ri esker. Bi urteren buruan, 1853-an sortuko ditu lore jokoak olerkari, kantu egile eta bertsularientzat, baina sari berak atxikiz pilotarentzat. Plaza berriak eraikiko dira, Donibane Lohizunen, Miarritzen 1853-an, Baigorri 1857-an. Urruñako partidetan pilotarien artean agertzen da 1853-an Léon Elissamburu guarda. Gaskoina, Harriague eta Pascal batekin jokatzen da Michel Dihursubehere (Autziartze) Vicente, Candelero eta Otharre-ren kontra (11). 1854-an ere aurkitzen dugu Manuel Lekuona (Urtxalle) Larrondo, Vicente dituela lagun, kontrarioak aldiz, Dihursubehere, Otharre, Gaskoina eta Harriague (12).

Fama ona bildu zukeen pilotari gisa Léon Elissamburu-k. Hor ditugu lekuko 1855-ean Hazparnen jokatuako erraboteko partida baten kantuak. Hona zer dioen bertsu batek Elissamburu-z:

(9) *Kantu, kanta, khantore*, Baiona, 1967, 250-251 orr.

(10) J. HARITSCHELHAR, “Urrugne (1851-1961), Contribution à l’histoire de la pelote”, *Gure Herria*, 1961, 192-205. orr.

(11) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1853ko irailaren 8an eta 1853ko irailaren 10ean.

(12) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1854eko irailaren 16an.

“Elissamburu guarda zuten botaria  
 Primarat jalgitzeko parerik gabia.  
 Ikusiz gero haren bota bihurria,  
 Dirurik haren kontra ez daite paria” (13).

1856-eko Urruñako bestek sekulako arrakasta ukan zuten han baitze-  
 gon partidaren ikusteko eta lorejokoen irabazlearen saristatzeko Louis  
 Lucien Bonaparte printzea. Pilotarien artean Léon Elissamburu sakaria  
 Melchior Oiartzuarra eta Otharre anaiekin jokatu zen. Melchior (Manuel  
 Ignacio Arpide) izan zen pilotarietarik hoberena, Elissamburu-ren lagun-  
 tzari esker irabazi zutela partida Manuel Lekuona (Urtxalle), Ignacio  
 Echeverria, Manuel Antsa eta Vicente-ren kontra.

“Heureusement secondé par les bras nerveux du brigadier  
 Elissamburu qui aplatissait pour ainsi dire la paume contre le  
 mur, Melchior a triomphé de ses adversaires et il est venu  
 recueillir de la main du prince le prix destiné au meilleur  
 joueur” (14).

Hauek dira artikulu egileak egiten dituen laudorioak; halaber ariko  
 da Ducos Donibane Lohizundarra Antoine d’Abbadie-ri eginikako gutun  
 batean dioelarik:

“Elizanburu s’est maintenu à la hauteur de la réputation  
 qu’il s’est acquise comme redoutable buteur avec lequel il faut  
 compter pour se montrer bon repousseur. Il est probable qu’il a  
 paralysé en grande partie les moyens de Manuel (Lekuona)” (15).

Beti fama berarekin jokatu da 1857-an Hazparneko bestetan, Doni-  
 bane Lohizunen eta Urruñan desafio haundietan. Saratarrak agertzen  
 dira desafiatzen dituztela bertze lapurtarrak, haien artean direlarik Gas-  
 koina eta Elissamburu.

“Un défi a été porté par quatre joueurs de Sare contre  
 quatre joueurs du Labourd avec enjeu de 500 francs. Gascoina  
 et Elizambourou figureront dans cette partie” (16).

Artikulutxo honek, bi izen horiek aipatuz eta horiek bakarrik aipa-  
 tuz, adierazten du pilotari horiek fama haundiko pilotariak zirela. Bage-

(13) “Pilota partida bat Hazparnen”, *Gure Herria*, Baiona, 1928, 450-451. orr. Agertara-  
 zi dut berriz kantu hori. J. Haritschelhar “Le lachua aux Aldudes”, *Gure Herria*, Baiona,  
 1964, 288.301 orr., frogatuz partida hori jokatu zela Hazparnen 1855eko ekainean, Hazpar-  
 neko bestetako dudarik gabe.

(14) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1856eko irailaren 16an.

(15) *NAF 21747*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 117-118.

(16) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1857ko irailaren 4ean.

nekien zer zen Gaskoina-ren fama, ez genekien, aldiz, hain fama haundi-ko pilotaria zela Léon Elissamburu.

Asma daiteke 1857-tik harat utzi zuela pilota dakigularik 41 urte zituela. Gaskoina eta Elissamburu biak gazterik hilen dira, lehena 1859-an, 42 urtetan, bertzea 1861-ean, 45 urtetan. Bi urte barne, bi pilotari haundi joaiten dira, azken laudorioak agertzen zirela jadanik aipatu dugun *Le Courier de Bayonne*-ko artikuluan:

“Il ne savait pas moins bien se servir de la paume et il avait en bien des circonstances paru avec éclat dans ces divertissements si chéris des Basques et qui attiraient sur la belle place d’Urrugne les amateurs des deux côtés des Pyrénées”.

### 3. OLERKARIA

Ez bakarrik pilotaria, olerkaria ere ezagutua zen Euskal Herrian, Iparraldean bederen:

“Plusieurs fois il avait avantageusement figuré dans les joues littéraires qui, chaque année, ont lieu a Urrugne. Ses poésies se faisaient remarquer par une certaine verve et un tour qui portait un cachet d’originalité toute particulière”.

Lehenbiziko lore jokoak 1853-an izan ziren. Ukan zuten arrakasta. Izan ziren kalapitak lehen sariaren irabazlea Celhabe Bardozekoa ez zela kantuaeren egilea, bigarren sariaren irabazlea Landerretche Mauleko artxi-pretra edo erretor nagusia ez zelarik agertu bere sariaren hartzeko. Etxahun-ek ez zuelakotz saria ereman, bortizki jorratu zituen saristatuak eta epai mahaikoak bere “Bi berseten egitez” deritzan kantuan (17).

Ez dakigu lehiaketa horretan parte hartu zuen Léon Elissamburu-k. Haren izena ez da agertzen ere 1854-ekoan, 1855-ekoan aldiz bai. Urte hartan, gaia da: emazte edaleak edo prentsak dioen bezala: “Le sujet de poésie basque mis au concours de cette année est une chanson qui ne dépasse pas cinquante vers contre les femmes qui aiment le vin” (18).

Hamazazpi kantu etorri ziren, Bardozetik asko, hiru Léon Dajas ikasle batek igorriak, bertze biga Laurent Daguerre bertze ikasle batek, Ziburutik, Urruñatik biga Martin Arrupe-k eginak eta irabazlea izan zen Léon Elissamburu “brigadier des douanes à Urrugne” *Emazte edalea*

---

(17) J. HARITSCHELHAR, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, Bilbao, 1970, 458-471 orr.

(18) *Le Mémorial des Pyrénées*, Pau, 1855eko abuztuaren 16an.

kantuaren egilea saristatua izan zela 1855-eko azaroaren 21ean; hala dio eskuz idatzirik kantu inprimatuaren Pariseko liburutegi nazionalako aleak (19).

Airea da “Hau da ikhazketako mandoaren traza”, aire alegera, aire atsegina, gaiari ongi doakiona. Zortzi bertsu ditu kantuak, bakoitzak sei neurtitz dauzkala, lau neurtitz luze 12 silabakoak (7 + 5) eta bi labur, 5 silabakoak: (7 + 5) – (7 + 5) – 5 – (7 + 5) – 5 – (7 + 5) bertsuaren egitura, rimak edo asonantziak direlarik (a – a – b – b – b – b).

Hona Duvoisin kapitainaren iritzia:

“Deux compositions dans lesquelles ces défauts (des sermons ou des tirades catoniennes, sans avenir ni sel, Duvoisin-en arabera) se font le moins sentir, nous viennent de M. Léon Elissamburu, brigadier ambulante des douanes à Urrugne. Une versification facile et correcte, une facture qui sent la bonne manière et une certaine culture de la langue, distinguent ces pièces parmi toutes les autres et les distancent d’assez loin. Les touches n’y sont pas assez légères, les coups de pinceau assez délicats; après tout, le poète parvient à se soutenir dans la sphère dans laquelle il est entré et c’est surtout par là qu’il l’emporte sur ses concurrents qui offrent d’aussi bons traits que lui, mais que leurs propres inégalités placent à des rangs inférieurs.

A propos des compositions de M. Elissamburu, nous dirons deux mots sur l’uniformité de la rime dans les couplets en langue basque.

Un défaut que le lecteur ne saisit pas tout d’abord dans la première pièce de M. Elissamburu, mais que l’oreille exercée de l’amateur de chant basque pardonne avec peine, c’est le changement de rime au troisième vers de chaque stance. L’uniformité de la rime est exigée, non pas tant par l’usage que par notre rythme poétique. Cela se conçoit d’autant mieux que nos vers étant ordinairement fort longs, l’uniformité de la rime rachète ce défaut ou le dissimule.

L’air du *charbonnier* choisi par M. Elissamburu permettait peut-être mieux que tout autre un changement de rime au milieu du couplet qu’il scinde là. Le troisième vers devant se rattacher par le sens aux deux qui le précèdent, le changement opéré après le second vers fait mal à l’oreille. Les quatrains de la seconde composition de M. Elissamburu ont également deux

---

(19) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 50.



rimes chacun. Nous ne l'en louons pas et nous lui dirons qu'il n'y a de mérite réel que dans la difficulté vaincue" (20).

Duvoisin-en arabera, Léon Elissamburu-k bi kantu igorri zituen. Ohartzen naiz bertze bat badela 39. orrialdean F.E. izenpetua. Beharbada L.E. sinatua zen eta nik gaizki irakurtu nuen. Behar liteke hurbilagotik ikusi. Dena den, hauxe da:

Zortzico airean.

“Ezagutua izan den escual herritan  
Edana garasti den dembora haukitan”

Orotara 48 neurtitz, bi neurtitzetarik aldatuz errima. Dirudienez hori daiteke Duvoisin-ek aipatzen duena (21), baina ez naiz batere segur, F.E. sinatua delakotz egiazki.

1856. urtean, Louis Lucien Bonaparte printzea Urruñan egon zen eta saristatu zituen pilotariak eta olerkariak. Urte hartako gaia: herriko bestak. Donibane Lohizuneko medikua, Larralde jauna, Bordaxuri Hazpandarraren semeak saria irabazi zuen. Léon Elissamburu-k kantu bat igorri zuen. Kantu honi buruz hona zer pentsatzen zuen Duvoisin Kapitainak:

“Le lauréat de l'année dernière n'a pas fait défaut au concours de cette année. Léon Elissamburu a envoyé dix quatrains d'une bonne facture et dont le tour est frappé au coin d'une certaine originalité d'un effet agréable. Sa versification est facile et correcte; elle rompt la monotonie dont la plupart des autres concurrents ne sont pas exempts. Léon Elissamburu eut vivement disputé le prix si un joueur plus puissant n'eut point paru dans la lice” (22).

Egia erran, ez da Elissamburu-ren kantua hamar bertsutakoa Duvoisin-ek zioen bezala, baina zortzi bertsu zeuzkan. Hona nola hasten den:

“Bozcario haundi bat bada gure baithan  
Ceren Eliza bestac diren herri huntan  
Nola eguinac garen ez diogu erran  
Atxeguin gaindizcoac gaitu hola eman (biz)”.

Airea: “Satararra naicela oroc badakite” eta sinatua da Elissamburu, brigadier des douanes. Acotz (23).

(20) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 48.

(21) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 39.

(22) *N.A.F. 21.747*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 262-263.

(23) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 65.

Ez zen lehiaketarik izan 1857-an. 1858-ko lore jokoetan agertzen da berriz Léon Elissamburu eta aipamen onak ukaiten ditu bere bi kantuentzat.

“Elissamburu, lauréat de 1855, auteur de la *Crinoline* et de la *guerre de Russie*.

Lehena, krinolinaz mintzo dena, “Hau da ikhazketako mandoaren traza” airean egina da.

Berxuak nahi ditut orai athera,  
Ichilik banindago banuke pena,  
bainan neke da,  
Krinolinaz baizikan solasik ez da,  
hauche da besta,  
Satanek etzezaken bertzerik pentsa (24).

Dirudienez, irakurtu zituzkeen Elissamburu-k Duvoisin-en kritikak bertsu osoa errima edo asonantzia berarekin egina baita eta ez 1855-ean bezala bi errimekin.

Bigarrenak bortz bertsu dauzka bederatzi neurtitzekoak bi errima agertzen direlarik bertsu bakoitzean. Hona lehen bertsuak:

“Rusiako emperadorea mintzarazi duk yendia  
bai eta truble handian eman kasik Uropa guzia.  
Ikusirik huela kontra Frantzia,  
Hirur nazionentzat buru yarria  
Lan tzarrean sarthu hintzela bahuen bai urrikia  
Beldurrez eta bethikotz gal, Nikola izen handia  
Lehen bezala orai ere Franxesaz haiz orhoituko  
Nola urez hala leyhorrez ez dukala bentzutuko  
Ez dukala bentzutuko (biz) (25)

Sinatua da: fait par L.E.

Hirugarren kantu bat, bederatzi bertsutakoa agertzen da ere esku iskribuetan, lau neurtitz dauzkala bertsu bakoitzak (7 + 6) oinekoa.

“Ni ere baniagok entzunik berria  
Noiz aguerturen zaikun goardian yarria  
Ongui berantexirik lan horren hastea,  
ez diat errech yasan iragan urthea.”

Lana eta alferkeria da kantuaren gaia eta sinatua da Elissamburu, brigadier des douanes, Acotz (26).

(24) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 131.

(25) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 124.

(26) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 133.

Asma daiteke kantu bat igorri zuela Léon Elissamburu-k 1859-ko lore jokoetara. Ez da agertzen saristatuetan ez eta aipamen onetan. Zortziko bat da, interesgarria egituraren aldetik: 7 - 6 - 7 - 6 - 7 - 6 - 7 - 6 neurtitz bakoitzak errima daukalarik, errima gurutzatuak naski (a b a b c d c d).

Ama doloreskoa  
 Ez nauzu ikhusten  
 Ni maluros umea  
 Preso nola naizen  
 Zu ez nahiz sinhexi  
 Zure eguietan  
 Zer dudan ardiexi  
 Ene eguietan (27).

Orotarat, zazpi bertsu “Elissamburu brigadier des douanes” sinatuak.

1860-ean agertzen da lehen aldikotz Jean-Baptiste Elissamburu koplarien gudian eta lehen saria irabazten du “Gazte hilcera dohana” kantuarrekin. Inprimatuak ziren orrialdetan irabazle gisa irakur daiteke Harlouch izena. Errakuntza bat izan zen Duvoisin Kapitainak aitortzen duena *Le Courier de Bayonne* delakoan:

“On nous prie de rectifier une erreur commise au sujet du nom de l’auteur de la poésie basque qui a remporté le premier prix au concours d’Urrugne. Cette pièce était anonyme et sans épigraphe; la même main qui avait copié et signé la chanson de M. Harlouch l’avait transcrite; de plus, les deux pièces ayant été présentées ensemble au concours, on se croyait suffisamment fondé pour l’attribuer à M. Harlouch. Mais on s’est trompé; cette chanson a été composée par M. Jean-Baptiste Elissamburu, lieutenant au 54e de ligne, frère de M. Léon Elissamburu, brigadier des douanes qui a obtenu la mention honorable et qui eut le premier prix en 1855.

Nous félicitons notre compatriote de conserver sous le drapeau et loin du pays l’amour de sa belle langue maternelle et de la cultiver avec tant de succès. Nous lui savons gré de venir rehausser l’éclat de nos fêtes par le concours de son talent. Qu’il persévère donc à se rappeler son *Escualherria* et à nous envoyer des marques de son souvenir, tout en continuant à mériter par ses qualités militaires l’estime et les récompenses de ses chefs. Nous savons combien il faut de mérite pour arriver en peu de

(27) *Cette basque* 164, Bibliothèque Nationale, Paris, F.° 229-230.

temps au grade où M. Elissamburu est parvenu, lorsque, comme lui, on part le sac sur le dos et sans nul appui.” (28)

Egun berean, *le Courier de Bayonne* horretan agertzen zen “Gazte hilcera dohana” olerkia bere frantses itzulpenarekin (Duvoisin-ek egina, noski) Jean-Baptiste Elissamburu-ren izenarekin.

Bi anaiek parte hartu zuten beraz 1860-eko lore-jokoetan, Léon Elissamburu-k irabazten zuela aipamen ona “Dantzaria” deitu kantuari esker, hau ere inprimatua eta *Le Courier de Bayonne* kazetan argitaratua bere itzulpenarekin (29).

Lehiaketari buruz eginikako artikuluetan, Duvoisin-ek dio:

“M. Elissamburu frère du premier lauréat, lauréat lui-même de 1856 (sic 1855 baitzen) a rajeuni un sujet qui fit naître, il y a quelques années un amas de platitudes et de banalités. Parler de la fête patronale et ne pas faire une rabâcherie est chose fort malaisée. M. Elissamburu a su éviter l'écueil; il a répandu dans ses couplets du sel et de la gaîté, c'est ce qui lui a valu le 3ème prix” (30).

Gustukua zuen beraz Duvoisin-ek “Dantzaria” kantua. Bederatzi bertsu dauzka, zortzi oinekoak, errepika bat erdian: “Rau riu rau, rata-plan, rau riu rau”, Iruñeko bestak oroitarazten duena, kantu bat alegera, gatz eta biperrez apaindua, airea duelarik “Orzirale arraxian, Garruzetik yin ninduyan...”.

\* \* \*

Bakoitzari eman behar zaio zor zaiona. Léon Elissamburu, anaia gehiena da. Hamabi urtez Jean-Baptiste baino zaharragoa da. Badakigu orain zazpi kantu bederen egin dituela lore-joko karietarat. Hor daude esku izkribuak edo inprimatuak izan diren kantuak. Anaia gazteak kendu dio anaia zaharrari bere bizi laburrean (45 urte zituen hil zelarik) ukan zuen fama. Ezagutua zen guarda, pilotari eta olerkari gisa. Txosten honekin pentsatzen dut eman diodala euskal letretan merezi duen lekua.

### Léon ELISSAMBURUren kantuak

1/1855 *Emazte edalea* (lehen saria) Celte basque 164 imp 50  
2/1856 *Bozkario handi bat baita gure baithan* Celte basque 164 ms 65

(28) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 12an.

(29) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 21an.

(30) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 23an.

3/1858	<i>La guerre de Russie</i>	Celte basque 164 ms 124
4/1858	<i>La crinoline</i>	Celte basque 164 ms 131
5/1858	<i>Ni ere baniagok entzunik berria</i>	Celte basque 164 ms 133
6/1859	<i>Ama dohakabea</i>	Celte basque 164 ms 229
7/1860	<i>Dantzaria</i>	Celte basque 164 imp 270